

Hizkuntza bisexuala

Amak sukaldean duen egutegia begiratu dut. Mungialdeko paisaia lainotsu bat eta azpian aipu bat: “Euskara hizkuntza bisexuala da. Anari”. Ozen irakurri dut. Amak eta biok desberdin interpretatu dugu. Berak uste duelako, euskaraz genero markarik ez dagoela. Nik euskaldun guztiok garelako aldi berean erdaldun. Tira, nire amak arrazoia izango du.

Txikia nintzenean Mekanoren *Mujer contra mujer* kanta mitikoaz gain, beste batek egiten zidan kilika barrenetan: “*Y nos metimos en el coche / mi amigo tu amiga tú y yo / te dije nena dame un beso / tú contestaste que no*”. Gerora etsipenez jakin nuen, kantak ez zuela Ana Torrojaen desioez hitz egiten, baizik eta José María Canok idazten zituela letrak. Nahasketa interesgarria sortzen zuen horrek, sexu aniztasuna lerro artean irakurri behar genuen garai horretan. Lesbianek Kanaria uhartee-tako Rosana abeslaria aldarrikatu dute, nahiz eta “*Cuando una noche de amor desesperados / Caigamos juntos y enredados*” kantatu. Gaztetan inoiz ez zitzaidan okurritu Ken Zazpi mutil batentzat gauero ilargia lapurtzeko prest egon zitekeenik edo Latzeneko abeslaria pertsona transgenero baten erruz bu-rua galtzen ari zenik. Euskara hizkuntza bisexuala (edo Amelia Barquinen esanetan, hizkuntza *queer*) izango da, baina tamalez, oraingoz heteroaraua eta binarismoa errotuta dauzkagu.

Euskaraldia-ren hirugarren egunean ari naiz artikulu hau idazten eta jakin badakit Bilbon euskara disidentzia dela eta gaztelania araua. Txikitan nire neska lagunekin “pelikuletara jolasten” nuen sekretuan, muxukatzeko aitzakia izateko, baina banekien mutilagunak izatea zela bide zuzena. Nerabezaroan



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Ez dut inoiz euskaraz ligatu, eztabaidatu, txortan egin, ezta amets egin ere. Euskararekin lotura afektiboa mantendu egin dut, baina Bilbon gaztelaniaz bizitzea da bide eroso. ARGIA-n idazteak eta, aurtan, Bilboko *Euskaraldia*-ren hamaikakoan *Ahobizi* bezala parte hartzeak lagundu dit euskararen errepideaz gozatzen

mutilagunekin jarraitu nuen, hori zen argitutako autobide eroso, bidaia sari ugari ordaintzea suposatu zuen arren. Lesbianismoa urrunetik ikus nezakeen bidea erakargarria zen, baina malkartsua. Feminismoari esker heteroarautik

desbideratu eta nire bidea egin nuen. Elebidun hazi nintzen, baina laster gaztelaniaren hegemonia gailendu zen. Ez dut inoiz euskaraz ligatu, eztabaidatu, txortan egin, ezta amets egin ere. Euskararekin lotura afektiboa mantendu egin dut, baina Bilbon gaztelaniaz bizitzea da bide eroso. ARGIA-n idazteak eta, aurtan, Bilboko *Euskaraldia*-ren hamaikakoan *Ahobizi* bezala parte hartzeak lagundu dit euskararen errepideaz gozatzen.

Maiz erabiltzen da euskaraz, armai-rutik ateratzearen metafora. Ostatu batean neska-lagunarekin erreserba egin eta ez jakin zer arreta jasoko duzun; deserosoa da eta bortitza izan liteke. Bilboko denda batean euskaraz egin eta ez jakin zer arreta jasoko duzun; deserosoa da eta bortitza izan liteke. *Ahobizi* txapa daramatenei begirada konplizeak botatzen dizkiet metroan, luma duten emakumeei bezalaxe. Gaztelaniaz, “*¿entiendes?*” kodea erabiltzen da gay eta lesbianen artean.

Imanol Epelderen artikulu batean irakurri dut 750.000 euskaldun elebidunetatik 200.000 inguruk baino ez dugula euskal literatura, musika edo kazetaritza noizbait kontsumitzen. Emakume bisexual batek emakumezko bikoteak dituenean galdetuko diote ez ote dituen gizonak (ala zakilak) faltan botatzen. Alderantzizkoa ez dut sekula entzun izan. Ba al dakite milioi erdi euskal elebidunek, zer galtzen ari diren? ARGIA. *Berria*. Danele Sarriugarte, Arantxa Urretabizkaia, Uxue Alberdi. Anari. Zea Mays. Maialen Lujanbio. Eta abar. Erdara-arauan guztiz murgilduta nengoenean inork ez zidan galera horri buruz galdetu. Hegemonia bide eroso izan daiteke, baina zein dira ordaindu beharreko bidaia sariak? ■